# HITZALDI FITXA

| HIRUBIDE BHI |
|---|
| UBUNTU SISTEMA ERAGILEA ETA INKLUSIOA |
| Hirubide BHI, zentro anitza da, Irunen dago kokatua eta gure ikasle gehienak bekadunak dira. Ikastetxe honetan baliabide digitalak erabiltzeko garatu dugun proiektua aurkeztuko dugu hitzaldian.<br><br>Gure proiektua software askean dago oinarrituta eta Ubuntu sistema eragilea instalatu dugu gure ordenagailuetan. Horrez gain Moodle plataforma ere erabiltzen dugu.<br><br>Ikastetxearen proiektu orokorra aurkezteaz gain gelako esperientzia konkretu bat ere azalduko dugu: DBH1eko Teknologia ikasgaian egin duten proiektua hain zuzen ere.<br><br>Bukatzeko, hezkuntzan software librearen inguruan biltzen garenok osatzen dugun "Hezkuntzan ere librezale" taldea aurkeztuko dugu. |